



**EDU**

## BALIO PROPOSAMENA

Gu Gorka Delpuerto, Sergio Lacasa, Uxue Mendigutxia, Oihan Trecet eta Naia Odriozola gara eta EDU taldea osatzen dugu. Gure proiektua eguzki-plaken bidez energia lortzen duten garraio bideak sortzea da. Honekin energia berriztagarrienerabilera bultzatu nahi dugu, eta horrez gain, gas bidez funtzionatzen duten garraio bideak baztertu eta ingurua kutsatzen ez dutenen erabilera sustatu.

Produktu honen alde eginez gero, inguruarekiko arduratsu izatea lortuko genuen, kutsadura murriztuz eta gaur egun larria den arazo horri irtenbide bat emanez. Bestalde, dirua aurrezteko lortuko genuke gasolina eta gasoilaren erabilera biziki murriztuz genukeelako. Gainera, diseinu aldetik berrikuntzak egingo direnez garraio bide erabilgarriak izango dira egonerkotasunerako.

Argi dago gure produktua **berritasunaren** adierazle garbia dela, izan ere, merkatuan ez da inoiz halako produkturik ikusi. Energia berriztagarriak hain eskuragarri izatea oso zaila izan da herritarren gehiengoarentzat, izan ere, eskuragarri izan dutenak nibel sozioekonomiko altukoak bakarrik izan dira. Hori dela eta, gure produktua herritarren gehiengoari bideratuta dago, beraiei ere energia berriztagarriak kontsumitzeko aukera ahalbidetuz.

Guk diseinatutako autoak **lana errazten** die bezeroei, izan ere, orain arteko produktuak denbora eta energian mugatuak izan dira eta horren aurrean gure bezeroek ez dute arduratu behar autoa kargatzeko eta pisu handi bat kentzen du erditik autoa erabiltzeko aukera beti izango dugula jakinik. Bestetik, alor mekanikoan egingo diren berrikuntzen ondorioz, autoa konpontzea errazagoa eta merkeagoa izango da motorraren funtzionamendua errazago izango baita.

Gure autoaren **diseinua** auto sinple baten antzekoa da, aldaketa bakar baino garrantzitsu bat du. Autoaren goialdean eguzki-plaka luze bat jarriko dugu, plaka honen funtzioa eguzkitik datorren energia hartzea da eta energia horri esker autoaren bateria kargatuko da, energia erabilgarria bihurtuz.

Auto hau oso **erabilerraza** da beste autoak baino askoz gutxiago kontsumitzen duelako eta energia lortzeko eguzkiaren argia erabiltzen duelako. Eguzkiak, nahiz eta zerua lainotua edo euritsua egon, beti botatzen ditu eguzki izpiak, beraz kotxeak beti izango du funtzionatzeko aukera, hau klima euritsuetan onuragarria izango da, esaterako.. Modu honetan, eguzkiak



ematen duen energia beti erabiliko da eta gainontzeko ibilgailuek sortzen duten kutsadura murrizteko aukera egongo da.

**EDU**